


# Oinarrizkoak

## Etorkinen erregularizazioaren aldeko bidezko ekimena

2021ko urrian sortu zan Oinarrizkoak ekimena, herritarren esku-hartzetik gure herrialdean desbardintasunaren eta eskubideen urraketa eragile nagusienetakoa dan horretan, hau da oinarrizko eskubideak jadesi ezinik dagoan ehunka mila etorkinen irregulartasunean, eragina izateko. Herri-ekimen Legegilea da (HEL), Legebiltzarraren bidez Espainian bizi diran eta paperrik ez daukien pertsonentzat erregularizaziorako ezohiko prozesua martxan jarri gura dauana.



## Zer da HELa?

Herri-ekimen Legegilea herritarren esku-hartzea ahalbideratzen dauan mekanismoa da. Zuzenbidezko Ordenamenduak ezartzen dituan baldintza eta mugak betez, herritarrek zuzenean lege-proposamena aurkeztu deikeoe Legebiltzarrari. Estatu espainiarrean, herri-ekimenak hauteskunde orokorretan botoa emoteko eskubidea daben, hau da, herritartasun espainiarra (NAN) eta 18 urtetik gora dabezana gitxienez 500 mila lagun sinadura eskatzen dau.

## Zergaitik?

Gizon eta emakume guztien oinarrizko eskubideak errespetatzeagaitik. Irregularitasunak, laneko esplotaziora, erakundeen aurrean ikusezin bihurtzera edo zerbitzu publikoetatik kanpo geratzera kondenatzen ditu. Gaur egun, irregularitasun honek, gitxi gorabeherako datuen arabera, 390.000-470.000 lagun ingururengan dau eragina (eta herena inguru adin txikikoak dira). Gehienak gure gizartean bizi dira eta badabe zerikusirik gizartearen garapenean be (sarritan oinarrizko egitekoak burutuz gizarteak funtzionatu daian); erantzukizunak be hartzen dabez eta egundoko desbardintasun itsusiak jasaten dabez eskubideak dabezana pertsona lez autortzeari dagokionez.

HEL, estatuko hainbat herri-sare eta plataformen arteko hitzarmenetik soru da. Era askotakoak diran baina, gehien bat etorkinen alde egiten dauan seihun erakunde baino gehiagoren babes dau: etorkinen alkarteak, gizarteratze eta pobretasunaren aurkako borrokarako alkarteak, GGKEak, Eleiza katolikoa eta beste hainbat sinismen erlijioso, erakunde politiko eta sindikalak, e.a. 'Erregularizazioa orain!' mobimentuaren bidez, gainera, etorkinek eurek be protagonismo handia dabe.

Oinarrizkoak HELaren helburua, argia da: babes nahiko lortu, legez eskatutako 500 mila sinadura baino gehiago batuz, aldarrikapen hau Diputatuen Kongresura helarazoteko, dagokion prozesu legegilea martxan jarri daian.

# Ze egoeratan dago HELa?

Honako hau idazten dihardugun egunerako, 430 mila sinaduratik gora batu da, eta hori benetan barri ona da. Baina falta diranak lortu beharra gogu epemuga amaitu baino lehen, hau da, 2022ko abendua baino lehen. Gainera, HELan sinadurak baliozkotzat joteko prozesua zorrotza danez, seguruenik miloe erdia aise gainditzea komeniko da, ustezko balio gabetzeak aurreikusiz.

Horregaitik, **Oinarrizkoak HELa puntu goren eta erabakigarrian aurkitzen da asteotan**, eta aparteko ahalegina eskatzen deutse auzi honegaz konprometitutako norbanako eta erakundeei, mobilizazioak emaitza onak izan daizan.

## Zer egin geinke HELari laguntzeko?

### Oraindik sinatu ez badozu: sinatu!

[HELan partaide diran erakuneeen](#) bitartez eskuratu daitekezan orri ofizialetan eta sinadurak jasoteko leku finkoetan egiten da sinadura fisikoa. Online be sinatu daiteke ziurtagiri digitalaren bidez. Sinaduraren inguruan gehiago jakiteko: [HEMEN](#).

### Sinatu dozu? Beste hainbat gauza egin daikegu

Seguruenik, etorkinen duintasun eta eskubideen auzian gugaz bat egiten dauan hainbat lagun ezagutuko dogu gure inguruan. Baina, beharbada, oraindik ez dabe HELa ezagutzen edo ez dabe sinatu. Hitz egin pertsona horreei ekimenari buruz eta esan ze garrantzitsua dan une honetan euren sinadura. Sinadurak jasoteko orria eskuratu daikezu (erakundeen bitartez edo zuzenean HELan) eta inguruan sinadurak batu.

Eta kontua ez da sinadurak batzea bakarrik (hau hil edo bizikoa bada be), gizartean sentiberatasuna biztea baino, eta migrazioaren inguruko benetako alkarrizketa eta atzerritarrei dagokiezan eskubideen inguruko alkarrizketa zuzena eragitea. Horregaitik, hitz egin daigun gai horren inguruan eta gainditu daiguzan sarritan entzuten diran aurrerexi eta guzurak. Eraiki daigun egunero gura dogun gizarte inklusiboago eta abegitsuagoa.



esenciales\*

\* El derecho a tener un futuro.  
Tu firma para conseguirlo.



esenciales\*

\* Nuestros trabajos.  
Nuestros derechos.  
Tu firma.

## Esteka interesgarriak:

<https://esenciales.info/>

HELaren weba lege-proposamenaren testugaz, sustatzaileen inguruko barriakaz, sinatzeko argibideakaz, orain arte batutako sinadurakopuruagaz, e.a.

<https://www.wikizens.com/>

Sinadura-bilketa kudeatzeko weba: partaide lez izena emoteko, bilketaren inguruko xehetasunak ezagutzeko, e.a.

[El poder de tu firma](#)

Bideo laburra azaltzeko eta motibatzeko.

[Informe Esenciales 2022.pdf](#)

(porcausa.org), HELaren inguruko argudio ugarigaz.